



# Iñaki Seguro: "Askotan erabiltzen dut 'munstro' hitza liburua definitzeko"

Ihintza Elustondo 2020-12-08 09:40



**'Sed quia sua' saikera liburua argitaratu du Iñaki Segurok (Azpeitia, 1962). Jorge Oteizaren 'Quousque Tandem' lanarekin paralelismo bat eginez, hizkuntzaren inguruko gogoetak bildu ditu lanean.**

**Sed quia sua** liburua aurkeztu zuten **Euskararen Nazioarteko Egunean. Euskararen inguruko gogoeta bat al da liburua?**

Ikaragarri zaila egiten zait liburua aurkeztea. Euskararen inguruko gogoeta? Bai eta ez. Nondik sortu da liburua? Jorge Oteizaren *Quousque Tandem* baliatu dut oinarri gisa. Garai batean, oso erreferentziala izan zen lan hori, eta konturatu naiz egun jendeak ez duela ezagutzen Oteiza: jendeak izena entzuten du, baina hortik aurrera ezer ere ez daki hari buruz, Arte Ederretako batzuek eta beste zenbait frikik izan ezik. *Quousque Tandem* garai batean sekulakoa izan zen, eta gaur egun jendeak ez daki zer den. Oteizak, liburu horretan, egin zuen sekulako pelikula, harrietatik abiatuta. Orduan, nik antzeko zerbait egin dut, hizkuntzatik abiatuta. Deskribasmatzen dut pelikula bat, berreraikitzen dut eta berrasmatzen dut euskal gogo jatorrizko bat. Hark asmatu zuen bezala harrietatik, nik asmatzen dut hizkuntzatik.

### Zer esan nahi du izenburuak?

Liburuaren egiturak *Quousque Tandem* imitatzen du: azaleko argazkiak, izenburuak... Oteizak latinezko esaldi bat baliatu zuen izenburu gisa, eta horregatik aukeratu dut nik ere latinezko esaera bat: Sed quia sua. Zera esan nahi du: baizik eta berea delako. Paralelismo hori gorde nahi da. Hori da gutxi gorabehera planteamendua, oso planteamendu arraroa; neu esaten ari naizela konturatzen naiz hala dela. Zergatik hau? Ba ez dakit.

### Izenburu nagusiaz gain, gazteentzako eta helduentzako titular ezberdinak pentsatu dituzu.

*Quousque Tandem euskaratik* da berez izenburua, baina horrek gazte bati ez dio ezer esaten. Orduan, gauzak eguneratuz bezala, pentsatu dut beste titular bat, gazteentzat: *euskara dekoloniala berraurkitzea edo birsortzea*. Orain dekolonialtasun hitza gora eta behera dabil; feminismo dekoloniala eta abar. Hitz hori sartu nahi nuen, agian belarria jarriko diolako orain dekolonialtasun horren gorabeheran dabilen jendeak.

### Zergatik Oteiza? Zergatik Quousque Tandem?

Oteiza mundu osoan ezaguna zen artista bat izan zen. Ibilbidea bukatu zuenean, Euskal Herriko historiaurreko artea eta berak pertsonalki egindako ibilbide artistikoa bat eginda zeudela ikusi zuen, eta berak lortu zuena orain dela milaka urte eginda zegoela uste izan zuen. Eta hortik ateratzen du, hustasun zera horretatik, euskal izaera bat edo. Eta nik atera dut hizkuntzatik ez dakit zer; ez dakit ezta izaera bat den ere. Hizkuntza batean nahiz bestean, gizakiok gauzak esaten ditugu. Baina hizkuntzak berak, inork hitz egin gabe, zerbait esaten al du? Liburua da saio bat hizkuntzak berak zerbait esaten al duen antzemateko.

### Zuk uste duzu hizkuntzak bere aldetik zerbait esaten duela?

Ez dakit, baina hala balitz bezala idatzi dut liburua. Iruditzen zait literaturarentzat filologikoa dela liburuan jaso dudana, eta filologoentzat poetiko-metafisiko-zoroegia. Gauza xeble bat da. Ez nuen uste argitaratuko zenik; beno, esperantza pixka bat baneukan, baina xeblea da... Idazten hasi nintzenean ez neukan batere argi argitaratuko zen ala ez. Ulertuko nuke ez argitaratzea.

### Noiz hasi zinen idazten?

Liburuan esaten dut 15 urterekin hasi nintzela gauza horiei bueltak ematen. "Usteak erdia ustel" esan, eta pentsatzen nuen: "Hizkuntza honek zerbait esaten du". Orain, bi urte pentsatzen eta beste bi idazten pasatu ditut; lau urteko prozesua izan da.

### Iñaki Segurok zer kezka ditu gai horien inguruan?

Euskal Filologia ikasi nuen, eta hainbat hiztegiren proiektuetan parte hartu dut. Beste gauza askoren bueltan ere ibili naiz, eta handik eta hemendik, munstro hau sortu da. Askotan erabiltzen dut hitz hori liburua definitzeko.

### Oteiza "euskal profeta belarrimotza" dela diozu. Zergatik?

Hori beti esan izan zaio Oteizari. Oteiza 1908an Orion jaio zen, baina ez zekien euskaraz. Aita azkoitiarra zuen, Azkoitiko baserri batekoa. Izarraizpeko azkoitiar baserriar bat Orioko aberats batekin ezkondu eta Oteiza sortzen da. Eta Oteizak bere poema batzuetan zera esaten du: *niño mutilado*. Zer da hori? Ez zekiela euskaraz. Eta hori zen bere harra, bere mina. Bere Azkoitiko aitonak seguru asko ez zuen erdaraz jakingo, eta askotan kontaktzen du ez ziola ulertzen hari. Trauma hori zeukan.

Jarraitu elkarrizketa irakurtzen [Urola Kostako Hitzaren webgunean](#).

KULTURA

*Uztarriak hainbat berrikuntza egin ditu bai webgunean, bai aldizkarian, eta zuen sostengu ekonomikoa behar du aurrera egiteko. Euskaraz, kazetaritza egiten segituko dugu, zuzentasunez eta zehaztasunez, eta zuek bide horretan lagun izatea nahi dugu. Elkarren beharra dugu!*

[Izan zaitetz Uztarriako bazkide](#)

[Erantzun](#)



## Ikusienak



**Handi datoz urak Urola ibaian**

Maialen Etxaniz  
abe 08, 09:04 [GIZARTEA](#)




**Doinu goxoak eta energiaz betetakoak eskaini dituzte Mikel Urdangarinek eta Gatibuk Soreasan**

Maialen Etxaniz  
abe 07, 14:51 [KULTURA](#)



**Kasu positibo bat atzeman dute Azpeitian**

[KORONABIRUSA AZPEITIAN](#)  
Juan Luis Romatet  
abe 08, 13:55 [GIZARTEA](#)



**Hutsik zegoen etxe baten etxaurrea erori da 1766ko Matxinada kalean**

Julene Frantzesena-Urtzi Oteiza-Ihintza Elustondo  
abe 07, 11:49 [GIZARTEA](#)



**Herritarren galdera artean aurkeztu dute 'Hil kanpatak' filma Azpeitian**

Maialen Etxaniz-Ihintza Elustondo  
abe 08, 12:44 [KULTURA](#)



**Herriko hainbat ostalarik bilera deitu dute birhako, "elkarrekin iritziak eta kezak partekatzekeo"**

Maialen Etxaniz  
abe 08, 11:27 [GIZARTEA](#)

## UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK

Soreasu auzoa zg., Dinamoa sormen gunea

Gipuzkoa, 20730 Azpeitia

943-15 03 58 | [uztarrria@ukt.eus](mailto:uztarrria@ukt.eus)

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



## Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA AIKOR ANBOTO ATARIA BALEIKE AIURRI ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GOIENA GUAIXE HIRUKA KARKARA  
MAXIXATZEN PLAENTXIA ALEA 28 KANALA ANTXETA BARREN ERLO TELEBISTA GEURIA GOIERRI TELEBISTA KRONIKA MAILLOE  
NOAUA DEUSTUALDEA PREST TXINTXARRI URIOLA UZTARRIA AMEZTI OIZMENDI TELEBISTA

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

Tokikom publikitateak